**Osasun etxeko lan administratiboak euskaraz. Trebakuntza taldean B2-C1**

| | |
|---|---|
| Nori zuzendua | Nafarroako osasun etxeetan administrazio lanetan aritzen diren langileak. Erabiltzaileekin ahozko eta idatzizko harremanak izaten dituztenak eta idatziz testu laburrak egiten dituztenak. |
| Zertan trebatuko zara? | **Ahoz,**<br>• Erabiltzailearekin **ohiko harremanak** euskaraz izaten: agurrak eta instrukzioak ematen...<br>• Arreta **telefonoz** eta **aurrez aurre:** txandak ematen eta aldatzen, oharrak eta abisuak adierazten,<br>• Lankideekin, **eginkizunei** buruzkoak: gertaerak azaltzen, elkarrizketa informalak eta formalak, proposamenak eta iradokizunak egiten...<br>**Idatziz,**<br>• **osasun-etxean, jendaurrean** jartzeko moduko oharrak eta abisuak idazten.<br>• **erabiltzaileei** bidali beharreko mezuak idazten<br>• **laneko eginkizunetarako idazkiak**: mezu elektronikoak, bilera deiak eta aktak... |
| Zer ikasiko duzu? | Ahozko komunikazioaren **ezaugarriak**: testuingurua eta adierazpideak.<br>Idatzizko komunikazioaren **ezaugarriak**: testuingurua, argitasuna, zehaztasuna eta testu elebidunak. |
| Formatua | **Erdi-presentziazkoa.** Aurrez aurreko **14 ordu**, **7 saiotan** banatuta; gainerako **15 orduak on-line.** Osotara 30 ordu.<br>Saio bakoitzean eginen ditugu ariketa berariazkoak eta praktikak. Idatzizkoa, berriz, online eginen dugu, teoriko-praktikoa izanen da. |
| Egutegia Ordutegia | **Urtarrila: 14, 21 eta 28. Otsaila: 4, 11, 18 eta 25.**<br>Ordutegia. 12:00etatik 14:00etara |
| Ziurtagiria | Bertaratze agiria, lanen %80a eginez gero |
| Tokia | Ahal dela, beren lantokitik hurbil. |